

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3738

AGINDUA, 2021eko ekainaren 16koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baita tokiko eremuan Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-ekipamenduen sarea 2021ean bultzatzeko dirulaguntzak emateko deialdia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.39 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen osoa du gazteria-politikaren arloan. Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren bidez (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena), Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari esleitzen zaizkio, besteak beste, gazteriari buruzko egitekoak.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak beste zenbait erakunderekin batera dihardu Euskal Autonomia Erkidegoko gazteriaren esparruan jarduerak suspertzeko lanetan. Helburu hori lortu nahian, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren gazte-ekipamenduen sarea bultzatzeko laguntzak eskaintzeko bideak ezartzen dira agindu honen bitartez.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak gazteria sustatzeko beste neurri baten moduan planteatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko gazteriaren esparruan agindu honen bidez eman nahi den bultzada hori, hau da, Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei EAEko gazte-ekipamenduen sarea handitzeko eta hobetzeko laguntza moduan.

Hori horrela, honako deialdi honen bidez, bi helburu lortu nahi dira batez ere: alde batetik, dirulaguntza-deialdi guztietan izan behar diren objektibotasun-, partaidetza- eta publizitate-printzipioak bermatzeko legezko oinarriak ezartzea; bestetik, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak diru publikoak era egokian erabiltzen direla jakin ahal izateko bideak finkatzea.

Adierazitako guztia aintzat hartuta, beren gazte-ekipamenduak eraiki edo hobetu nahi dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeak dirulaguntzez baliatu ahal izateko moduko esparru zabala diseinatu nahi dugu. Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan arlo honetara zuzendutako diru-kopurua bera izango da muga bakarra.

Hori dena kontuan izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da gazte-ekipamenduak eraikitzeko, handitzeko edo hobetzeko dirulaguntzak banatzeko modua arautzea, betiere ondoren zehazten diren baldintza eta betebeharrak aintzat hartuta.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdi honen helburua betetzera zuzenduko diren baliabide ekonomikoak, hots, 290.000 euro, xede horretarako aurrekontuetan ezarritako kredituetatik etorriko dira.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Agindu honetan jasotzen diren dirulaguntzei atxiki ahal izango zaie nortasun juridiko propioa duen Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakunde oro. Udalaz gaindiko erakundeek gaitasun eta xede egokiak izan beharko dituzte beren jarduketaren eremuan dagozkien ekimenak egiteko, bat eginez beren estatutuek xedatzen dutenarekin.

2.– Agindu honen 1. artikuluan jasotako jarduketak egin nahi dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek, baldin eta jarduera horiek Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea indarrean jarri aurretik, hots, 2016ko apirilaren 15aren aurretik, garatzen ez badituzte, bikoiztasunik ez dagoela adierazten duen txostena lortu beharko dute alde aurretik (https://www.euskadi.eus/zerbitzu_eskaera/toki-administrazioko-zerbitzura-eskaera-generikoak/web01-a2tokiad/eu/), baita eskumen berriaren finantza-iraunkortasunari buruzko txostena ere, dagokion foru-aldundiak emana, 93/2019 Dekretuak xedatutakoaren arabera (93/2019 Dekretua, ekainaren 25ekoa, udal-eskumenen klausula unibertsalaren ondoriozko jardueren, zerbitzuen edo prestazioen egikaritzea arautzeko dena).

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea indarrean jarri aurretik, eskumenen klausula unibertsalek eratorritako jarduerak, prestazioak eta zerbitzuak gauzatzen zituzten udalerriek lege horren hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa bete beharko dute, hargatik eragotzi gabe 93/2019 Dekretuaren 21. artikuluan ezarritakoa (93/2019 Dekretua, ekainaren 25ekoa, udal-eskumenen klausula unibertsalaren ondoriozko jardueren, zerbitzuen edo prestazioen egikaritzea arautzeko dena).

3.– Ez dira erakunde onuraduntzat joko udalaz gaindiko erakunde baten parte izan arren erakunde horren izenean eskatutako ekimenaren antzeko beste bat bere kasa aurkezten duten toki-erakundeak, baldin eta udalaz gaindiko erakundearen ekimenari atxikita egon bazitekeen beren izenean aurkezten duten hura.

4.– Ezingo dute deialdi honetako dirulaguntzarik eskatu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, laguntza publikoak lortzeko zigorrak duten erakundeek, ezta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenek ere. Halaber, ezingo dute dirulaguntzarik eskatu sexu-bereizkeria dela-eta zigorrak duten erakundeek, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren indarrez.

5.– Era berean, ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako inguruabarretako batean dauden erakundeak, hala nola zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea, eta dirulaguntzak itzultzeko ordainketak egunean ez izatea; izan ere, baldintza horiek bete beharko dira dirulaguntza eman arte, eta hori betetzen dela egiaztatu beharko da dirulaguntza ematen denean. Gorabehera horiek gertatzen diren ala ez erabakitzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 4., 5. eta 6. apartatuetan ezarritakoa hartuko da aintzat, eta gorabehera bakoitzerako ezarritako helmena izango dute.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta bazterketak.

1.– Diruz lagungarritzat joko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoaren arabera, 12 eta 30 urte bitarteko gazteentzako ekipamenduetarako berariazko higiezinak eraikitzeko, eraberritzeko, egokitzeko edo handitzeko lanak

2021eko ekitaldian egiteko gastuak edo kostua, bai eta, hala denean, langile profesional kualifikatuek dagokion obra-proiektua egitea ere. Hala denean, diruz lagundutako jarduera egikaritzeko kontratazioa izan daiteke diruz lagundutako jarduera osoa, betiere Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan xedatutakoa errespetatuz, eta, bereziki, hirugarrenekin hitzartutako jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen badu eta aipatutako zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa bada, dirulaguntzaren erakunde onuradunak alde aurreko baimena eskatu beharko dio idatziz Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gazteria Zuzendaritzari.

2.– Nolanahi ere, diruz lagungarri diren obrek edo obra-proiektuek kostu osoaren % 30eko finantzaketa izan beharko dute gutxienez. 20.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietako erakunde eskatzaileen obrek edo obra-proiektuek, deialdi honen bidez eskatzen den zenbatekoa alde batera utzita, finantzaketa propioa izan beharko dute, kostuaren % 30ekoa gutxienez, hau da, erakunde eskatzailea ez den beste erakunde publiko batetik datozen zuzkidurak ezin izango dira finantzaketan gehitu, baldin eta eskatutako dirulaguntzaren xedearekin zuzenean lotutako kontzepturen batengatik jaso badira.

3.– Ez dira inola ere diruz lagunduko erakunde eskatzailearen langile propioen gastuak.

4.– Artikulu honen arabera diruz lagundu ezin diren gastuak edo kostuak jasotzen badira erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan, gastu horiek kendu edo araztu egingo ditu balorazio-batzordeak diruz lagundu daitekeen gastu- edo kostu-aurrekontua zehazteko, zeina izango baita dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko oinarria.

5.– Agindu honen aplikazio-esparrutik kanpo gelditzen dira honako jarduketak hauek:

a) Ondare bihur daitezkeen elementuetan inbertitzeko edo horien gastuak ordaintzeko xederik ez dutenak. Alde batera utziko da espresuki higitarriak eta bestelako ekipamendu-materialak erostea edo konpontzea.

b) Hartzaileak nortzuk diren argi eta garbi identifikaturik ez dutenak.

c) Aurkeztutako jarduera bakoitzerako helburuak, pertsona edo erakunde hartzaileak eta inbertsioen edo sarreren aurrekontua eta gastuak edo kostua behar bezala zehazten ez dituztenak, baldin eta eskabide berean izaera desberdineko jarduerak sartzen badira.

d) Erakunde eskatzailearen jabegokoak ez diren lokalei dagozkien obrak eta obra-proiektuak.

e) Dagokion legeria aplikagarria betetzen ez duten lokalak.

f) «Gazte-ekipamenduak definitzeko eta sailkatzeko proposamena» dokumentuan jasotako tipologiekin bat egiten ez duten lokalak. Dokumentu hori Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeak onartu du:

https://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovj_otras_publicaciones/eu_liburuak/adjuntos/gazte_ekipamenduen_definizioa_eta_sailkapena.pdf

5. artikulua.– Dirulaguntzaren xede diren ekimenak egiteko epea.

Diruz lagundutako ekimenak 2021eko ekitaldian hasi beharko dira edo hasita egon beharko dute, eta, beranduenez, 2021eko abenduaren 31n amaitu beharko dira.

6. artikulua.– Dirulaguntzak izapidetzea.

1.– Bitarteko elektronikoak erabili beharko dituzte erakunde interesdunek prozedura horren izaideak eskatzeko, zuzentzeko, justifikatzeko eta egiteko.

2.– Agindu honen eranskinean jasotako eskabide-eredua, eta eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko xehetasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan daude eskuragai.

3.– Hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

4.– Erakunde eskatzaileek eskabidea eta dokumentuak euskaraz zein gaztelaniaz aurkez ditzakete, nahi duten eran. Halaber, prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutako moduan.

5.– Helbide honetan daude eskuragai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

6.– Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaritza hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

7. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentuak.

1.– Eskabidea, 8. artikuluan adierazitako erantzukizunpeko adierazpenak barne hartzen dituena, osorik beteko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskuragai dagoen formularioaren bidez: www.euskadi.eus/servicios/0055009

2.– Eskabide-orriarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Eskatutako dirulaguntza xede duen ekimenaren memoria zehatza, ekimenaren hasiera- eta amaiera-datak eta inbertsioen edo diru-sarreraren eta gastuen edo kostuaren aurrekontu banakatua eta zehatza, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskuragai dagoen formularioaren arabera. Bertan honako gai hauek zehaztu beharko dira:

– Egikaritze-egutegiari dagokionez, adieraziko da egin beharreko ekimena noiz hasiko den eta noiz amaitzea aurreikusten den 2021eko ekitaldi honetan, eta 2021eko abenduaren 31n bukatu beharko da, beranduenez.

– Ekimenaren memoria zehatuan justifikatuko da hautaketa-, balorazio- eta kuantifikazio-irizpide bakoitza betetzen dela, agindu honetan xedatutakoaren arabera, eta, gutxienez, honako atal hauek jasoko dira: helburuak, ekimenaren xede diren adin-tarteak, beste administrazio publiko batzuekin koordinatzeko mekanismoak, helburuen egokitasuna (kontuan hartuko da ekimenaren helburuak argi eta garbi zehaztuta dauden, errealistak diren eta gazte onuradunentzako dirulaguntzen gutxienerako helburuetan oinarritzen diren), dirulaguntza eskatzen duen ekipamendua gazteei bideratzen jarraitzeko konpromisoa (datozen bost urteetan, gutxienez), ekimenaren lurralde-eremua eta eremu edo gune mugakideetako kolektiboaren gaineko eragina, eta genero-ikuspegia.

– Orekatua izan behar da ekimenaren inbertsioen edo diru-sarreraren edo kostuaren aurrekontu banakatua eta zehatza, hau da, diru-sarreraren edo inbertsioaren zenbateko osoa (deialdi honetan Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteria Zuzendaritzari

eskatu zaion zenbatekoa barne, baita, hala denean, xede bererako beste erakunde publiko edo pribatu batek urte berean emandako edozer dirulaguntzaren zenbatekoa ere) eta gastu edo kostu osoaren zenbatekoa berak izan behar dira. Horrela ez bada, agindu honen 10. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio, hain zuzen ere, dirulaguntzak banatzeko sistema jasotzen duenari.

– Udalaz gaindiko erakundeen kasuan, gainera, sormen-araua adierazi beharko da, edo, hala denean, dagokion erregistro publikoko inskripzioa.

b) Obraren burutzapen-proiektua, honako hauek jasoko dituen gutxienez: memoria, kokapen-eta banaketa-planoak, proiektuaren ezaugarrien eta proiektatutako obren deskribapen zehatza eta, obrak txikiak badira, egingo diren obren zehaztapen teknikoaren ale bat.

c) Erakundeko idazkariak emandako ziurtagiria, dirulaguntzaren xede den ekimena egitea onartzen duen erabakia jasotzen duena, edo ordezkariak erakundearen izenean erabaki hori hartzeko adina botere duela adierazten duena.

d) Lokalaren jabetza-agiria.

e) Eskumena duen organoak erakunde sustatzaileari emandako finantzaketa ordaintzeko nahikoa kreditu dagoela adierazten duen ziurtagiria.

f) Hala denean, horretarako beste laguntzarik edo dirulaguntzarik ez dela jaso dioen egiaztagiria.

g) Eskabidea balioesteko aurkeztu nahi den dokumentazio osagarria.

3.– Gainera, Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legea indarrean sartu aurretik, hots, 2016ko apirilaren 15aren aurretik, agindu honen 1. artikuluan jasotako jarduerak egiten ez dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek dagokien foru-aldundiari eskumen berriaren egonkortasun finantzarioari buruzko txostena eman beharko diete, 3.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.– Erakunde batek ekimen bat baino gehiago aurkeztu nahi baditu, ekimen beste eskabide-formulario aurkeztu beharko ditu, horiei dagokien dokumentazio erantsiarekin.

5.– Gazteria Zuzendaritzak erakunde eskatzaileari espedientea osatzeko behar dituen dokumentu eta azalpen guztiak eskatu ahal izango dizkio, eta, era berean, eskatzaileak emandako datuak egiaztatzeko egin beharreko egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu.

6.– Eskabidearen osteko izapideak helbide honetan egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

8. artikulua.– Erakunde eskatzailearen baldintza eta betebeharrak jakin batzuk egiaztatzea.

1.– Eskabidea aurkezteak baimena emango dio organo kudeatzaileari ordezkariaren datuak eta hirugarrenen alta eskuratu edo egiaztatu ditzan, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen eskumenak, betiere.

2.– Eskabidea aurkezteak baimena ematen dio organo kudeatzaileari zerga-betekizunak eta Gizarte Segurantzarekiko betekizunak bete direla automatikoki egiaztatzeko, bai eta dokumentu elektronikoak biltzeko ere, bere sare korporatiboaren bidez edo datu-bitartekaritzako plataformak edo horretarako prestatutako beste sistema elektroniko batzuk kontsultatuz; baimen hori berariaz ukatzen denean izan ezik. Kasu horretan, onuradunak dagozkion ziurtagiriak eman beharko ditu, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako instantzia administratiboek egindakoak.

3.– Eskabideek honako aukera hau jaso beharko dute: dirulaguntzak eskatzen dituen erakundeak esanbidez adieraztea baimena ematen diola organo kudeatzaileari gainerako datuak edo dokumentuak lortu edo egiaztatzeko, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak esleitura dituen egiaztatu, kontrolatu edo ikuskatzeko ahalmenak.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua betez, honako betebeharrak egiaztatuko dira, eskabidearekin batera egindako erantzukizunpeko adierazpen baten bitartez:

a) Ez dagoela sartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan ezarritako debekuetako batean ere, eta ez duela legezko beste inolako debekurik, laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea galarazten dionik, ez eta sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoari jarraikiz.

b) Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla, eta erakunde eskatzaileak betetzen dituela dirulaguntza horiek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

c) Eskatutako dirulaguntza xede duen ekipamenduak sektore-araudi aplikagarria betetzen duela.

Erantzukizunpeko adierazpen bati erantzen zaion datu, azalpen edo dokumenturen bat zuzena ez bada, edo faltsua bada, edo haietako bat falta bada, prozedura etengo da horren berri jakin bezain laster, hargatik eragotzi gabe gerta litezkeen erantzukizunak (penala, zibila edo administratiboa). Halaber, gorago azaldutakoa adierazteko ematen duen ebazpenean, interesdunak dirulaguntza itzuli behar duela ezarri ahal izango du Administrazio Publikoak, hala behar badu.

5.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean jasota egon beharko du. Alta eman edo hirugarren interesduneko zure datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenentzako erregistro telematikora jo beharko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/altaterceros>

9. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Eskabidea izapidetzea onartzeko eskatutako dokumentu batzuk falta direla edo horietan forma-akatsak daudela ikusiz gero, edo eskabidea balioesteko aurkeztutako dokumentuetan akatsak aurkituz gero, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari hutsegitea konpontzeko edo aginduzko dokumentuak aurkezteko, eta jakinaraziko zaio ezen, hori egiten ez badu, haren eskabidean atzera egin duela edo izapidetzeko eskubidea galdu duela ulertuko dela; betiere, aurrez dagokion ebazpena emango da.

10. artikulua.– Dirulaguntzak banatzeko sistema.

1.– Deialdi hau lehiaketa bidez ebartziko da. Horretarako, eskabideak konparatuz egingo da esleipena, deialdi honetan ezarritako hautaketa- eta balorazio-irizpideak aintzat hartuta, beren arteko lehentasuna ezartzeko. Nolanahi ere, laguntza jasotzeko beharrezkoa izango da 40 puntutik gora jasotzea.

2.– Eskatutako zenbateko guztia emango da, baina ezingo da izan dirulaguntzaren ondorioetarako aurkeztutako ekimenerako onartutako aurrekontuaren % 70 baino handiagoa, eta betiere 60.000 eurotik beherakoa izango da, 40 puntutik gorako puntuazioa lortu bada. Hala denean, emaitzaren zenbatekoa biribilduko da, eta zenbaki oso gertukoena erabiliko da.

3.– Aurreko apartatuetan ezarritakoari jarraikiz xedatutako dirulaguntzen zenbatekoen baturak deialdi honi egokitutako baliabide ekonomikoak gainditzen baditu, puntuazio-ordenaren arabera esleituko dira laguntzak. Eskatutako zenbatekoa osorik ordaintzeko behar besteko diru-zuzkidura duten ekimenak baino ez dira lagunduko diruz.

4.– Bi eskabidek edo gehiagok puntuazio bera lortuz gero, baldin eta dirulaguntzaren onuradun izateko eskatzen den gutxieneko puntuazioa gainditu badute eta guztientzako aurrekontu-krediturik ez badago, dirulaguntza jaso ahal izateko, kontuan hartuko da zenbat biztanle hartzen duten, eta haien artean zenbat eta gazte gehiago dagoen, deialdi honen xede den adin-tartetzat hartuta, hau da, 12 eta 30 urte bitartekoa.

5.– Aurrekontua eta aurkeztutako gainerako dokumentazioa aztertu ondoren egiaztatzen bada sarrerek gastuak gainditzen dituztela, eskatutako zenbatekoa murriztu egingo da, eta jardueraren aurrekontua orekatuta geratu arte egingo da murrizketa hori. Halaber, egiaztatzen bada dirulaguntza jaso ezin duten gastuak sartu direla aurrekontuan eta ezin bada zehaztu eskatutako zenbatekoaren eta berez dituzten sarreren zer kopuru sar daitekeen horien barruan, proportzionalki murriztuko dira eskatutako zenbatekoa eta berezko sarrerak.

6.– Balorazio-batzordeak onartutako eskabideak eta onartu ez dituenak bereiziko ditu esleipen-proposamenean. Horrez gain, eskabideak ez onartzeko arrazoiak adieraziko ditu, ekimeneen balorazioaz gain, eta eskatutako dirulaguntzak baietsi edo ezetsi diren jakinaraziko du. Berdin egingo du epaimahai kalifikatzaileak eskabide berean izaera ezberdinetako jarduerak badaude eta denak diruz laguntzen ez badira edo denak baztertzea proposatzen ez bada, hots, ebazpen-proposamenean, balorazio-batzordeak zehaztuko du zein jarduketak jasoko duen laguntza eta zeinek ez.

11. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, honako kide hauekin:

– Presidentea: Josu Gerediaga Egurrola, Gazteriako arduraduna.

– Bokala: Lourdes Ramírez de Ocariz Sorolla, Gazteriako teknikaria. Ordezkoa: Beñat Martínez Castillo, Gazteriako teknikaria.

– Bokala: María Jesús Emazabel Lekuona, Gazteriako teknikaria; idazkari ere jardungo du. Ordezkoa: Maite Artabe Urkidi, Gazteriako teknikaria.

2.– Eskabideak aztertzea eta ebazpen-proposamena: deialdi honetan aipatzen diren balorazio- eta esleipen-irizpideak kontuan hartuta, balorazio-batzordeak, eskabide guztiak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteriako zuzendariari. Gainera, beharrezko iritzitako dokumentazio guztia eskatu ahal izango dio eskatzaileari, betiere aldeztu aurretik jakinarazita eta hamar egun balioduneko epea emanda.

12. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Honako irizpide hauek aplikatzearen ondorioz sortutakoa izango da agindu honetan araututako deialdi honetara aurkezten diren erakundeek jaso dezaketan dirulaguntza:

a) Erakunde eskatzaileak jarduera horretara bideratu dituen sarrera propioen eta jardueraren aurrekontu osoaren arteko proportzioa % 30etik gorako baliabideen ehunekorik handiena balioetsiko da, gehienez, % 20ra arte.

b) Ekimena zer adinetara bideratzen den; balorazio handiago lortuko dute adin-tarte handiagoak barne hartzen dituzten proiektuek, 12 eta 30 urte bitarte dutenei zuzendutako ekimeneke, gehienez, % 20 lortu arte.

c) Beste Administrazio Publiko batzuekin koordinatzeko mekanismoak: beste sail edo udal batzuekin; eskualde edo mankomunitate batekin soilik; sailarteko eta mankomunitatearekin; foru-aldundiarekin, foru aldundiarekin, mankomunitatearekin edo sailarteko batekin soilik; Eusko Jaurlaritzarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, mankomunitatearekin edo sailartekoarekin soilik; Eusko Jaurlaritzarekin eta foru-aldundiarekin; Eusko Jaurlaritzarekin, foru aldundiarekin, mankomunitatearekin edo sailarteko gobernuarekin; % 15 gehienez.

d) Helburuen egokitasuna: kontuan hartuko da ekimenaren helburuak argi eta garbi zehaztuta dauden, errealistak diren eta gazte onuradunen beharren azterketan oinarritzen diren, % 20 gehienez.

e) Eskatutako dirulaguntza xede duen ekipamendua gazteei bideratzen jarraitzeko konpromisoa (datozen bost urteetan, gutxienez); erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen duen urte-kopurua gero eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da balorazioa, % 10 gehienez.

f) Ekimenaren lurralde-eremua edo mugakide diren ingurune edo eskualdeetako kolektiboetan izan dezakeen eragina: % 10 gehienez.

g) Genero-ikuspegia: aintzat hartuko da erakunde eskatzaileak berdintasun-plan bat duen edo zer neurritan barne hartzen dituen aurkeztutako ekimenean desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko berariazko helburu edo jarduerak, % 5 gehienez.

13. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa eta muga.

1.– Agindu honetan ezarritako dirulaguntzek dirulaguntzaren ondoretarako aurkeztutako ekimen bakoitzean onartutako aurrekontu-zenbatekoaren % 70 lortu ahal izango dute gehienez.

2.– Hargatik eragotzi gabe aurreko paragrafoan adierazitakoa, gehienez 60.000 eurotik behera emango da eskabide bakoitzeko.

14. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuek helburu bererako emandakoekin, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gainfinantzaketarik badago, aldiz, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

2.– Hala denean, erakunde eskatzaileek dirulaguntzaren xede diren ekimenterako emandako beste laguntza edo dirulaguntza ororen zerrenda aurkeztu beharko dute eskabidean, dirulaguntza ematen duen erakundea eta emandako zenbatekoa aipatuta. Deialdi hau eskatzeko epea amaitu eta gero eman badira bestelako laguntzak edo dirulaguntzak, sarreren eta gastuen azken

balantzean jaso beharko da. Ekimen bererako beste laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso ez bada, erakunde eskatzailearen organo eskudunak sinatutako ziurtagiria erantsi beharko zaio eskabideari.

15. artikulua.– Kudeaketa.

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Gazteria Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak kudeatzeko egin beharrekoak burutzea.

16. artikulua.– Ebazteko prozedura.

1.– Aurkeztutako eskabideei buruzko ebazpena ematea Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gazteriako zuzendariari dagokio, balorazio-batzordeak egindako ebazpen-proposamena ikusita.

2.– Ematen den ebazpena sei hilabeteko epean jakinaraziko zaie erakunde interesdunei, agindu hau indarrean sartzen denetik aurrera. Jakinarazpenak helbide honetatik egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>. Ebazpen horrek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtoa jar dakiok Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin.

3.– Ebazteko epea igarota, ebazpenik jakinarazten ez bada, dagokion eskabidea ezetsi egin dela ulertuko dute erakunde interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

4.– Denek jakin dezaten, eta hargatik eragotzi gabe erakunde interesdunei espresuki eta banaka jakinarazteko beharra, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, agindu honen babesean emandako laguntzak jaso dituzten erakundeen zerrenda jasoko duena, laguntzen diru-kopuruak eta destinoak barne.

5.– Nolanahi ere, bat etorritik azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartutako Euskal Herriko Ogasun Orokorreko Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.4 artikuluekin, onuradunei dirulaguntzak eta laguntzak eman eta, hala denean, ordaintzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta horren erakunde autonomoek ematen dituzten izaera bereko laguntza edo dirulaguntzen arloan hasi eta oraindik ere izapidean den itzultze- edo zehapen-prozedura orok amaituta beharko du. Dirulaguntza horiek emateko –eta, hala denean, ordaintzeko–, halaber, ezinbestekoa izango da halako prozeduretan jasotako dirulaguntzak itzultzea, baldin eta itzulketa-prozeduraren bukaeran hala eskatzen duen ebazpena eman bada.

17. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako dirulaguntzen erakunde onuradunek artikulua hauetan xedatutako betebeharrak bete beharko dituzte: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikulua, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 14. artikulua. Zehazki, bete-behar hauek bete beharko dituzte:

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman dela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean erakunde onuradunek berariaz uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat emango da.

2.– Laguntza zertarako eman den, hartarako erabili beharko da, ez beste ezertarako.

3.– Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dirulaguntzen fiskalizazio-egitekoetarako behar duten informazio guztia ematea.

4.– Agindu honetan adierazitako dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek berriaz aipatuko dute Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteria Zuzendaritzaren laguntza izan dutela, dirulaguntza emateko ebazpenaren berri dutenetik aurrera, diruz lagundutako jarduera edo egitaraua dela-eta argitaratzen dituzten egitarau, iragarki-kartel, argazki eta idatzizko zein gainerako multimedia material guztietan. Material horiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dira. Gainera, diruz lagundutako jardueraren ondorioz sortzen diren liburu, liburuxka edo kartelen ale bat aurkeztu behar dute beren kontura edo, bestela, horien kopia euskarri fisiko edo magnetikoan, materialaren izaera edo euskarriaren egokitasunaren arabera. Konpromiso honetatik salbuetsita egongo dira behin jarduera bukatuta eskabidea aurkeztu eta dirulaguntza jasotzen duten erakundeak, baita dirulaguntza eman zaiela jakinarazten dien komunikazioa jarduera bukatuta jasotzen duten erakundeak ere.

5.– Dirulaguntza eman den xede zehatzerako erabili beharko ditu erakunde onuradunak ondatsunak, bost urte baino gehiagoko denbora-tartean.

6.– Diruz lagundutako jarduketarekin zerikusia duten guztietan hizkera ez-sexista erabiliko dela bermatzea.

7.– Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteria Zuzendaritzak kontsultatzeko hala eskatzen duenean, honako dokumentazio hau jartzea haien esku:

a) Ekipamenduaren kudeaketa-proiektua (antolamendu-egitura, jarduera-programazioa, gazteek parte hartzeko bideak, eta abar).

b) Obra-kontratuaren esleipen-erabakiaren hitzez-hitzeko ziurtagiria.

c) Lanen zuzendaritza fakultatiboaren izendatzea jasotzen duen ziurtagiria.

d) Lan-hasieraren aktaren kopia.

e) Sektorearen araudi aplikagarriak hala eskatzen duenean, lortutako lizentzia edo baimenen kopia.

f) Kontratazio-kasuan aurkeztutako eskaintzen arteko hautaketa, diruz lagundu daitekeen zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuaren Legeak kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu.

8.– Diruz lagundutako jarduketan gorabeheraren bat gertatuz gero, organo kudeatzaileari jakinarazi beharko zaio. Organoak, hala denean, behar diren egokitzapenak egingo ditu, indarrean dagoen araubidearen arabera.

18. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Dirulaguntza bi ordainketetan ordainduko da: lehenengoan, dirulaguntzaren % 50 ordainduko da, diruz lagundutako inbertsioaren % 50 egikaritzeari dagokion gastua benetan egin dela egiaztatu ondoren; eta, bigarrean, gainerakoa, diruz lagundutako inbertsioa erabat egikaritzeari dagokion gastua benetan egin dela egiaztatu ondoren, hurrengo artikuluetan ezarritakoarekin bat eginez.

2.– Egindako inbertsioaren edo gastuaren zenbatekoa hasieran emandako dirulaguntza kuantifikatzeko planteatutako aurrekontua baino handiagoa bada, ez da dirulaguntzaren zenbatekoa handituko.

3.– Dena dela, ezingo da dirulaguntza ordaindu baldin eta erakunde onuradunak ez baditu ordaindu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo, orobat, itzulketa-ebazpen bat dela medio, zorduna bada.

19. artikulua.– Justifikazioak aurkezteko tokia eta modua.

Justifikazioak baliabide elektronikoak erabiliz aurkeztu beharko dira, emandako dirulaguntza-ren formularioa erabiliz. Formularioa eskuragai dago Eusko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: www.euskadi.eus/servicios/0055009

20. artikulua.– Emandako laguntza justifikatzeko epea eta aurkeztu behar diren dokumentuak.

1.– Diruz lagundutako ekimenak bi epetan justifikatu beharko dira: lehenengoa 2021eko abenduaren 30era artekoa izango da, eta inbertsioaren % 50 justifikatuko da; bigarrena 2022ko martxoaren 31ra artekoa izango da, eta inbertsio osoa justifikatuko da, honako dokumentu hauek aurkeztuta:

a) Justifikazio-kontu sinplifikatua, honako hauek jasoko dituen: egindako jardueraren memoria xehatua, diru-sarreraren eta gastuen balantzea, eta diruz lagundutako ekimena gauzatzeko gastuen zerrenda sailkatua. Memoria xehatua, egindako jardueraren zerrenda jasoko da, bai eta diruz lagundutako ekimenaren betetze-maila eta hasieran proposatutako helburuen ebaluazioa ere. Sarreraren eta gastuen balantzean barne hartuko da xeheki diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda. Zenbatekoa eta jatorria adierazi beharko dira. Halaber, hauek agertuko dira gastuen zerrenda sailkatuan: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, noiz eman den, eta, hala badagokio, ordainketa-data. Justifikazio-kontu sinplifikatuaren eredia, zeinaren edukia eranskinean baitago, Eusko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskuragai, helbide honetan: www.euskadi.eus/servicios/0055009

b) Hala denean, lagundutako ekintzen inguruan sortu eta zabaltzen diren liburu, txosten, liburuxka, horma-irudi eta gainerako euskarri idatzizko, soinu- edo ikus-entzunezkoen ale bana, edo horren kopia bana euskarri fisiko edo magnetikoan, ikusirik, bata ala bestea, zein den egokiena.

2.– Emandako dirulaguntza justifikatzeko dokumentuak aurkeztuta ere, erakunde onuraduna behartuta egongo da unean uneko faktura jatorrizkoak, benetako kopiak edo egindako gastuen gaineko edo jarduera gauzatzeari buruzko dokumentazioa aurkeztera, hala eskatzen diotenean bai dirulaguntza ematen duen organoak bai legeria aplikagarriaren arabera ahalmen hori aitortua duten gainerako organoek ere, jasotako dirulaguntzaren destinoa zuzena eta egokia izan dela egiaztatze aldera.

21. artikulua.– Likidazio-ebazpena.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira –dirulaguntzaren xedea bete bada, betiere– edo, hala denean, beste erakunde publiko zein pribatu batzuetatik bestelako dirulaguntza eta laguntza bateragarriaren bat jaso bada, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, zeinak ez baitu inola ere estaliko ez-betetze erabatekorik, ez eta funtsezko alderdiei edo laguntza emateko eta erakunde onuraduna zehazteko erabakigarriak izan diren alderdiei eragiten dienik edo hirugarrenei kalterik egiten dienik ere. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteria zuzendariak bidezko kitapen-ebazpena emango du, emandako diru-zenbatekoak doitzeko.

22. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Ez-betetzeak izango dira honako hauek:

a) Jasotako dirulaguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jardueraz bestelakoe-tan erabiltzea.

b) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, hala denean, laguntza ematerakoan ezartzen direnak ez betetzea.

c) Hala denean, dirulaguntzaren likidazioa edo itzulketa egiteko ebazpenean adierazitako zen-batekoa dagokion epean ez itzultzea.

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua arautzen dituen gainerako ez-betetzeak, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 53. artikulua arautzen dituenak.

2.– Baldin eta egiaztatzen bada egoera horietakoren bat gertatu dela, Euskal Herriko Diruzain-tza Nagusiari itzuli beharko zaizkio bai jasotako kopuruak, bai dirulaguntzen arloan aplikagarria den legezko berandutze-interesa. Bi arau hauek agindutako moduan eta horiek arautzen dutena beteta egingo da itzulketa hori: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu, eta horien kudeaketan parte hartzen duten era-kunde laguntzaileen eskakizunak, erregimena eta betebeharrak ezartzen dituena.

3.– Itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz zehaztuko da, eta kontuan hartuta betetze-maila guztiz betetetik nabarmen hurbiltzen dela eta onuradunek beren konpromisoak argi eta garbi bete dituztela egiaztatzen dutela. Hala, diruz lagundutako ekimenaren helburu partzialak edo jarduera zehatzak betetzen ez badira, dirulaguntzaren zati bat itzuli beharko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskabidean ageri diren izaera pertsonaleko datuak tratatuko dira, eta honako izen hau duen tratamendu-jardueran sartuko: Gazteriaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gazteria Zuzendaritza.

Xedea: Gazteriaren arloko laguntzak kudeatzea.

Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren alde edo tratamenduaren ardu-radunari esleitutako ahal publikoak erabiliz egindako misio bat betetzeko.

Destinoa: Ez dago aurreikusita daturik jakinaraztea.

Eskubideak: Datuak eskuratu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubideak dituzu, bai eta informa-zio gehigarrian adierazten diren eskubideak ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia.

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/124700-capa1-eu.shtml>

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf

– Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa: https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Lehenengoa.– Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, haren aurka, auke-rako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete erakunde interesdunek Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Salan bi hileko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 16a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

ERANSKINA

I.– ESKABIDEAN BARNE HARTU BEHARREKO DATUAK. ESKABIDEA DAGOKION FORMULARIO ELEKTRONIKOAREN BIDEZ EGIN BEHAR DA

Erakundearen izena eta ordezkariaren IFZ: Izen-abizenak. NAN zenbakia. Sexua.

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak jasota dauden lurraldea/probintzia.

Abisuak jasotzeko datuak: Telefono-zenbakia / helbide elektronikoa.

Jakinarazpen, komunikazio eta oharretarako hizkuntza (euskara – gaztelania).

Dirulaguntza jasotzeko aurkezten den ekimenaren izena.

Erantzukizunpeko adierazpenak. Adierazten dut ezen erakunde eskatzaileak:

– Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza edo dirulaguntza eskatu diola eta hark eman (atal honetako datuak «Ekimenaren Memoria eta Aurrekontua» izeneko dokumentuan zehaztu behar ditu).

– 2016ko apirilaren 15aren aurretik garatu al du gazte-ekipamenduen eskumena udalerrriak?.

Bai.

Ez: Bikoiztasunik ezaren aldeko txostena eta finantza-iraunkortasunari buruzko txostena erantsi beharko dira.

– Ez duela zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.

– Ez du laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko legezko debekurik, ez eta, bereziki, sexu-bazterkeriagatik berariaz ezarritako halako debekurik ere.

– Eskatutako dirulaguntza xede duen ekipamenduak sektore-araudi aplikagarri guztia betetzen duela.

– Indarrean dauden arauetan ezarritako eskakizunak betetzen dituela.

– Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

Eskabidean ageri diren izaera pertsonaleko datuak tratatuko dira, eta honako izen hau duen tratamendu-jardueran sartuko: Gazteriaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gazteria Zuzendaritza.

Xedea: Gazteriaren arloko laguntzak kudeatzea.

Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak erabiliz egindako misio bat betetzeko.

Destinoa: Ez dago aurreikusita daturik jakinaraztea.

Eskubideak: Datuak eskuratu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubideak dituzu, bai eta informazio gehigarrian adierazten diren eskubideak ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia.

<https://www.euskadi.eus/clusulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/124700-capa1-es.shtml>

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>

– Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari: [buruzkoahttps://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)

Dokumentuak erantsi:

– Ekimenaren memoria eta aurrekontua.

– Obra gauzatzeko proiektua edo zehaztaperen teknikoaren ale bat.

– Erakundeko idazkariak emandako ziurtagiria, dirulaguntzaren xede den ekimena egitea onartzen duen erabakia jasotzen duena, edo ordezkariak erakundearen izenean erabaki hori hartzeko adina botere duela adierazten duena.

– Lokalaren jabetza-ziurtagiria.

– Hala denean, horretarako beste laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso ez dela dioen egiaztagiria.

– Erakunde eskatzaileak dirulaguntzaren xede den ekimena gauzatzeko finantzaketa ordaintzeko ekitaldi honetan nahikoa kreditu duela dioen egiaztagiria.

Instrukzio-organoak honakoak egiaztatuko ditu ofizioz: Araudi aplikagarriaren arabera, honako datu hauek zuzenak direla egiaztatuko du prozeduraren instrukzio-organoak, administrazio eskudunari galdetuta:

– Zerga-betebeharrak egunean edukitzea (EAEko foru-aldundiei edo Estatuko Zerga Agentziari galdetuta).

– Gizarte Segurantzako ordainketa-betebeharrak egunean edukitzea (Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari galdetuta).

Aurka egiten diot prozedura honetako instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzeari (39/2015 Legearen 28. artikulua). Egiaztatzearen aurka egonez gero, prozeduran eskatzen diren dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzu.

II.– ESKABIDEAREKIN AURKEZTU BEHARREKO MEMORIA ETA AURREKONTUA

Erakundea.

2016ko apirilaren 15aren aurretik garatu al du gazte-ekipamenduen eskumena udalerririk?

Bai.

Ez: Bikoiztasunik ezaren aldeko txostena (https://www.euskadi.eus/peticion_servicios/peticiones-genericas-al-servicio-de-administracion-local/web01-a2tokiad/es/) eta finantza-iraunkortasunari buruzko txostena erantsi beharko dira.

Udalaz gaindiko erakundeen kasuan, sormen-araua adierazi beharko da, edo, hala denean, erregistro publikoko inskripzioa.

Ekimenaren izena. Hasiera-eguna. Noiz amaitzea aurreikusten den.

Harremanetarako eta jakinarazpenetako pertsonaren identifikazio-datuak: Izen-abizenak. Kargua edo lanpostua. Telefonoa. Posta elektronikoa.

Memoria: Helburuak. Ekintzaren hartzaile izan daitezkeen adin-tarteak. Beste administrazio publiko batzuekin koordinatzeko mekanismoak. Helburuen egokitasuna: aintzat hartuko da ekimenaren helburuak argi zehaztuta dauden, errealistak diren eta gazte onuradunen benetako behar egokien azterketan oinarrituta dauden. Eskatutako dirulaguntza xede duen ekipamendua gazteei bideratzen jarraitzeko konpromisoa, datozen bost urteetan, gutxienez. Ekimenaren lurralde-eremua edo mugakide diren ingurune edo eskualdeetako kolektiboen gaineko eragina. Genero-ikuspegia. Informazio osagarria.

Aurrekontua:

Gastuak: Kontzeptua. Zenbatekoa. Gastuak, guztira:

Inbertsioa: Kontzeptua, zenbatekoa. 1.– Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzari eskatzen zaion dirulaguntza (gehenez, gastu guztien % 70). 2.– Bestelako finantzaketa-iturriak: 2.a) Emandako bestelako laguntzak eskabidea egiten den egunean, 2.b) Bestelako sarrerak, 2.b) Erakunde eskatzailearen ekarpena (20.000 biztanle baino gehiagoko erakundeen kasuan, gutxienez, gastuen % 30 izan behar da). Inbertsioa, guztira. Oharra: Zenbatekoak bat egin beharko du guztizko gastuekin.

III.– JUSTIFIKAZIO-KONTU SINPLIFIKATUARI DAGOKION INPRIMAKIA

Jasotako dirulaguntzaren justifikazioa

Memoria zehatza: Erakundea. Ekimenaren izena. Hasiera-data. Amaiera-data. Harremanetarako pertsona: Izen-abizenak, kargua edo funtzioa, posta elektronikoa, telefonoa. Urtean zehar egindako lanen zerrenda. Dirulaguntza-eskabidean aurkeztutako ekimenaren betetze-maila. Diruz lagundutako jardueraren balorazioa, dirulaguntza-eskabidean aurkeztutako memorian aurreikusitako helburuekiko egokitzapenari dagokionez.

Ekitaldian zehar egindako sarrera eta gastuen balantzea:

Ekimenaren izena.

Gastuak: Aurrekontu-partida. Kontzeptua. Gastua. Gastuak, guztira.

Inbertsioa: Kontzeptua: 1.– Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa. 2.– Bestelako finantzaketa-iturriak: 2.a) Jasotako bestelako laguntzak, 2.b) Bestelako sarrerak, 2.b) Erakunde eskatzailearen ekarpena (20.000 biztanle baino gehiagoko erakundeen kasuan, gutxienez, gastuen % 30 izan behar da). Zenbatekoa. Inbertsioa, guztira (oharra: zenbatekoak bat egin beharko du guztizko gastuekin).

Justifikatutako gastuen banakapena:

... Mota:... Zk:... Data:... Igorlea (abizenak eta izena edo sozietatearen izena):... Kontzeptua:... Guztizko zenbatekoa (euroak):... Egotzitako zenbatekoa (euroak):... GUZTIRA:... euro

Zinpeko edo erantzukizunpeko aitordua: Erakunde eskatzailearen izena eta IFZ. Legezko ordezkariaren izen-abizenak eta NAN. Aipatutako erakundearen legezko ordezkaria naizen aldetik, adierazten dut sartutako datuak egiazkoak direla, deialdian ezarritako baldintzak betetzen ditudala, eta, nolana ere, adierazten dut prest nagoela Gazteria Zuzendaritzak zerrendatutako edozein egiaztagiri egiazta dezan, dirulaguntza behar bezala erabiltzen dela egiaztatzeko. Horretarako, jatorrizko egiaztagiri guztiak bidaltzeko eskatu ahal izango zaio.